



Trikitixa Txapelketan sei bikotek hartuko dute parte gaur

KRISKITIÑA Dantza Taldeak antolatuta, X. Gazteen Trikitixa Txapelketa izango da gaur Gudarien plazan, eguerdiko 12:00etan hasita. Guztira sei bikotek hartuko dute parte, Anoeta, Aia, Andoain, Zestoa eta Hernanikoak. Hauetatik hiru bikote izango dira hernaniarrak: Irati Ugalde eta Amaia Mujika, Maialen Murua eta Ainhoa Usandizaga, eta Olatz Jaka eta Ainhoa Errazkin. ||

Sagarra eta sagardoaren festa gaur plazan

TOLAREA Gipuzkoako Sagardo Kofradiak antolatuta ekitaldi ugari izango dira Plazan. Bertara hurbiltzen direnek sagardoa dastatzeaz gain, kalejira, sagar eta sagar produktuen erakusketa, sagarra biltzeko prozesua eta sagardoa nola egiten den ikusi ahal izango dute. Guztira Hernaniko 12 sagardogile bilduko dira bertan. /2

◆ FUTBOLA

Gorengoen ligan irabazi, eta Emakumezkoen ligan galdu

Hernaniko bi talde nagusiek Zubipen jokatu dute asteburu honetan. Gorengoen ligan, 2-1 irabazi dute Hondarribiaren kontra; Emakumezkoen ligan 1-2 galdu Añorgaren kontra. /3

◆ UDALA

Aurrekontu parte hartzaileak asteazken honetan hasiko dira

Hernaniko Udalak Aurrekontu parte hartzaileetako bilerak hasiko ditu asteazken honetan, eta aste batzuetan luzatuko da prozesua. Horregatik, udalak dei egin die herritar eta talde guztiei prozesuan parte hartzeko. /2

◆ OSIÑAGA

50 lagun Bermeora

Osiñagako 50 lagun egunpasa joango dira gaur Bermeora. Goizeko 08:30etan aterata arrantzaleen museoa bisitatu eta itsasontzi batean bidaiatuko dute, besteak beste. ||

GAUR KRONIKAN

Wukro. Elkartasun Jardunaldiak /2

Astigarraga. Euskaraz Bai! eguna gaur /2

Kirolak. Futbola, Ehiza, Pelota, Erremontea /3

Zinemaldia. Lou Erdozia. Sail ofizialaren gida txikia /6

Garagardo azoka /7

Karabeleko haur festa /8



Urbieta kalean patinek hartu zuten kotxeen lekua atzo

HERNANI Patinez eguna izan zen atzo, eta gaur *Hernani* bizikletaz eguna izango da Mugikortasun Iraunkorreko Astearen barruan. Ume, gazte eta helduek aukera bikaina izango dute bizikletak hartu eta herrian barrena ibilbide bat egiteko. Irteera Plaza Berritik izango da goizeko 09:30etan eta ekitaldia eguerdiko 12:00ak arte luzatuko da. Bihar izango da azken eguna; arratsaldean 17:00etatik 19:00etara haurrentzako jolasak izango dira, itxita dagoen Urbieta kalean. Ondoren, 19:00etatik aurrera *Hernani eta mugikortasuna* argazki lehiaketako sari banaketa izango da. Guztira 5 partehartzaile izan direnez, saria 5en artean banatuko da. ||

B A E L U
Iluminazioa

MODERNOA-DISEINOA
FORJA - KLASIKOA
BEIRA - BRONZEA-JARDINA

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

**BEHERAPENAK
MATERIAL LIKIDAZIOA**

ZUBIONDO POLIGONOA B2 - 9 LANTEGIA - 20120 HERNANI
☎ 943 33 50 05

*Mugimendua
jostailu*

Mugimendu adierazgarrien
lantegia haurrentzat

Talde txikiak
Banakako arreta

SASOIKO Marieluts, 4-behea
Tel.: 943 33 11 83

HERNANI AHOLKULARITZA

ABOKATUA
Zerbitzu
juridikoak

943 33 71 71



www.hernani.biz
Kale Nagusia, 33. entlo.

❖ WUKRO - IV. Elkartasun Jardunaldiak

Herri bazkaria izango da gaur Atsegindegin

Wukro herriari laguntzeko jardunaldiak gaur bukatuko dira eguerdian egingo den bazkariarekin.

WUKRO herriari laguntzeko Hernaniko talde batek antolatu dituen elkartasun jardunaldiak gaur bukatuko dira.

Eguerdiko 14:00etan Atsegindegin egingo den herri bazkarian bilduko dira bai antolatzaileak eta baita alde zuzenetik bazkarirako txartelak erosi dituzten herritarrak ere. Atzoko eta gaurko ekitaldien

helburua da Wukron (Etiopia) dagoen Angel Olanan misiolari herna- niarrak daraman *Jangela Solidarioa* proiekturako dirua lortzea.

Bazkariko menua honako hau izango da: hasteko paella, bertan egingo dutena, ondoren, oilaskoa eta entsalada, eta azkenik, jardunaldian egindako lan guztia ezin gozoago bukatzeko *brazogitano*-a. ||



Aurpegiak margotu eta hainbat jokutara jolasteko aukera izan zuten atzo umek.

Sagardoa probatzeko eta sagarraren mundua ezagutzeko aukera gaur

Sagarra eta sagardoaren festa izango da gaur goiz goizetik hasita Gudarien plazan.

TOLAREA Gipuzkoako Sagardoa- ren Kofradiak antolatuta, aurten ere, Sagarra eta sagardoaren festa izango da Gudarien plazan.

Festan, Henaniko 12 sagardo- gilek hartuko dute parte: Itxasburu, Goiko-Lastola, Otsua-Enea, Eloorrabi, Zelaia, Altxueta, Larre-gain, Rufino, Alberro, Iparragirre, Olai- zola eta Akarregi.

Ekitaldi ugari izango dira

goizean goiz hasita. 09:00etan kalejira izango da txistulariekin. 10:30etan berriz, sagar eta sagar produktuen erakusketa. Ondoren, 11:00etatik 13:30etara sagardo dastaketa, pintxo eta guzti.

Gainera, sagardo probaketak irauten duen bitartean, 12:00etan alegia, sagarra biltzeko prozesua ikusteko aukera izango da eta 12:30etan sagardoa egingo dute. ||

Euskaraz Bai! astea izango da Astigarragan

Bihartik hilaren 28ra arte izango da AEK, Arantzazuko Ama eta Astigarragako Udalak antolatuta.

EUSKAL Gizarte Erakundeen Kontseiluaren 10. urteurrena dela aprobetxatuta, Euskaraz Bai! astea antolatu dute Astigarragan AEK, Arantzazuko Ama eta Astigarragako Udalak. Helburua batetik, Astigarragako herritarrak euskerarekin sentsibilizatzea eta kontzientzia hartzea da, eta bestetik euskeraren inguruan dauden egitasmo, zerbitzu eta aktibitateak ezagutaraztea.

Ekitaldiak

Aste osoan zehar Kontseiluaren

ibilbidea erakutsiko duen argazki erakustaldia izango da Kultur Etxean.

Astelehenean, 20:00etan, *Kontseilua 10 urtez bidea irekitzen* hitzaldia izango da Kultur Etxeko aretoan. Bertan hiru antolatzaileek proiektuaren aurkezpena egingo dute.

Asteartean, 17:00etan hasita, haurrentzako tailerrak eta jolasak izango dira Joseba Barandiaran enparantzan.

Ostiralean, 14:00etan, panel informatiboa eta ikastolako ikasleek egindako lanen erakusketa izango da. ||

Aurrekontu parte hartzaileetan parte hartzeko deialdia luzatu die Udalak herriko talde eta pertsona guztiei

Datorren astetik aurrera Udalak aurrekontu partehartzaileen prozesua martxan jarriko du eta herritarrek proposamenak egin, aztertu eta erabakitzeke aukera izango dute, asteazketatik aurrera.

HERNANIKO Udalak datorren astetik aurrera aurrekontu partehartzaileen prozesua martxan jarriko du. Lehengo urtean gauza bera egin ondoren, Udal Gobernuaren esanetan, izan zuten esperientzia ona eta gero, aurten ere Hernaniko talde eta pertsona guztiek parte hartzea nahi dute.

2009 urteko Udal aurrekontuei begira, prozesu partehartzaile bat ireki nahi dute. Bertan, lehen aipatu bezala, herriko talde eta

pertsona guztiek aukera izango dute proposamenak egin, aztertu eta erabakitzeke.

Bilera egutegia

Aurrekontu partehartzaileetan parte hartu nahi dutenentzat, bilera egutegia honako hau izango da: irailaren 24an, asteazkena, proposamenak egiteko aukera izango da, 19:30etan Biteri kultur etxean. Irailaren 30ean ere, asteartea, aurreko egunean aukera izan ez dutenek, proposamenak

egiteko aukera izango dute 19:30etan Biteri kultur etxean.

Urriaren berriz, lehendik egindako proposamenak aztertzeke aukera izango da. Honetarako ere bi egun izango dira. Lehenengoa urriaren 8an, asteazkena, 19:30etan; eta bestea, urriaren 22an, asteazkena, 19:30etan. Proposamenen azterketa hauek ere Biteri kultur etxean egingo dira.

Udal Gobernuaren esanetan «herritar guztiak animatu nahi ditugu prozesu honetan parte har dezaten, horren

ondorioz, aurrekontuak osatzeko unean herritarren iritzi eta proposamenak kontuan izateko».

www.hernani.net orriaren bidez proposamenak egiteko aukera

Bestalde, aurrekontuetarako proposamenak egiteko egunetan Biterira azaldu ezin daitezkeenek izango dute beste aukera bat. Udalak www.hernani.net web orria jarri du proposamenak egin ahal izateko.

Honez gain, web gune berean herritarrek prozesu partehartzaileari buruzko informazioa izango dute. ||

BILERA EGUTEGIA

Biteri Kultur etxean:

- Irailak 24-30; 19:30

Proposamenak egin

- Urriak 8-22; 19:30

Proposamenak aztertu

◆ FUTBOLA - Gorengo maila eta Emakumezkoen liga

Emaitza gazi gozoak atzo txuri berdeek Zubipen lortutakoak

Gorengo mailan 2-1 irabazi zuten hernaniarrek. Emakumezkoen ligan berriz, añorgarrak izan ziren nagusi 1-2.

PARTIDU onak jokatu zituzten arren Hernaniko bi talde nagusiek, ez zuten biek garaipenik lortzerik izan. Emakumezkoen ligan galdu egin zuten eta Ohorezko ligan berriz, denboaldiko lehen garaipena lortu zuten etxean.

Merezitako garaipena Gorengo mailan

Indartsu eta seguru hasi zuen Gorengo mailako taldeak etxeko lehen partidua. Nagusi izan ziren hernaniarrek ia partidu osoan. Lehen zatia amaitzerako 2-0eko alde zuten Hondarribiarekiko. Partidua bideratuta atera ziren bigarren zatia jokatzerako, eta Hondarribia gola sartu eta berpiztu egin zela zirudien arren, garaipena etxean geratu zen.

Emakumezkoen ligan ezin irabazi

Ezin hobeto hasi zuten Emakumezkoen ligako denboraldi berria hernaniarrek. Atzo ordea, ezin izan zuten



Denboraldiko bigarren partiduan ongi aritu zen Hernani.

garaipena lortu etxeko lehen partiduan. Galtzen hasi ziren arren, partidua nahiko berdindua izan zen, eta hernaniarrek berehala lortu zuten berdinketaren gola. Hala eta guztiz ere, partidua amaitzeko minutu gutxi falta

zirela, Añorgako neskek garaipenaren gola sartu zuten. Ezusteko handia izan zen talde hernaniarrentzat, golaren baliogarritasuna zalantzakoa baitzen. Hala ere, azken emaitza 1-2koa izan zen añorgarren alde. ||

◆ FUTBOLA - Luci Palaciosi omenaldia



Luci Palaciosen eta bere familiakoek ondo merezitako omenaldia jaso zuten atzo.

Errealeko beteranoek eta Luciren lagunek jokatu zuten elkarren aurka, lagunarteko partidua, eta asko izan ziren bertara hurbildu ziren futbolzale eta ezagunak. Partidua hasi aurretik, Luciren arrebari, Maicari, lore sorta eta plaka eman zizkieten. Hauek izan ziren elkarten izenean etorriak: Iñaki eta Carlos Albistur (lagunen izenean), Juan Luis Larrea (Gipuzkoako Futbol Federazioko lehendakaria), Ricardo Ramos (CDHernaniko lehendakaria), Oskar Murillo (Gipuzkoako Kirol Elkarten Federazioa. ACEGI), Jesus Gonzalo (Errealaren izenean), eta Dodaca Salegi (Antiguoko taldearen izenean). Luciren lagunek antolatuta zuten atzoko omenaldia, eta oso gustora zeuden izandako harrerarekin.

Partiduak ere ikusmin handia piztu zuen, Errealeko jokalaririk ohiak baitziren bertan: Gorritz, Perico Alonso, Uria, Alkiza, Xanti Bakero, Taifun, Cuyami, Fuentes, Loinaz, Alberdi, Roteta anaiak, Orbegozo, Zudaire, Aginaga, Campo, Zabala, Galarraga... eta abar izan ziren bertan. Partidu polita jokatu zuten bi taldeek ere eta Errealak irabazi zuen 0-3, aurtengo arratxa onari jarraituta. ||

◆ JOCC-Zikuñagako Ama



JOCC elkarteko txirrindulari eta lagunak lokal berrian.

Lokal berria inauguratu zuten ostiralean

JOCC Zikuñagako Ama Txirrindulari Elkarteak lokal berria inauguratu zuen ostiralean. Lokala Transpacar-eko hartzaindegi zaharrean dago eta Udalak ekaina bukaeran utzi zion Elkarteari.

Elkartearen helburua, lokala herriko bizikleta zale-

tuak elkartzeko gune bihurtzea da. Bestalde, taldearen eginkizunetarako ere erabiliko dute, hau da, fitxak, lizentziak eta abar egiteko. Edozein kontsulta egin nahi duenak ere 606 109 788 telefonora deitu dezake ostiralean 20:00etatik 21:00etara. ||

◆ PELOTA

Gipuzkoako Txapelketako partidua gaur

Hernaniko Pelota Elkarteko bi bikotek Gipuzkoako binakako Txapelketa partidua izango dute. Bi partidua Kiroldegiko frontoian jokatuko dira goizeko 11:00etatik aurrera. Jubeniletan partiduan Noble eta Zapiain hernaniarrek Usurbilgo taldeko bikotearen aurka arituko dira. Seniorretan berriz, Esnal eta Gorrotxategi bikotea Eskoriatza taldeko bikotearen aurka arituko dira. ||

◆ ERREMONTA

Atzo jokatutako partiduetako emaitzak

Galarretako lehen partiduan Zalakain eta Gazteluk 35 eta 24 irabazi zioten Matxin III eta Etxezabali. Atzoko erremonte jokalaririk profesionaletako azken partidua izan zen Zalakainentzat. Bigarren partiduan Ezkurra eta Urkok erraz irabazi zieten Juaristi eta Urrutiari 40-26. Hirugarren partiduan, Altuna IIIk eta Etxabek 40-29 irabazi zioten Urriza eta Iriarteri. Azken partiduan berriz Agirresarobe eta Ion nagusitu ziren 30 eta 21 Bitoria eta Agirrezabalaren aurka. ||

◆ EHIZA

Beda erdia itxi da

Ehizeko beda erdia abuztuaren 15ean ireki zen eta gaur itxiko da. Beda osoa berriz, ez da urriaren 12ra arte irekiko. Beraz ehiza egin nahi dutenek postu fijoetatik edota federazioak baimendutako postuetatik bakarrik egin ahal izango dute. ||

◆ FUTBOLA

Futbol eskolan izen emateko aukera gaur bukatuko da

2008-2009 urteko Hernaniko futbol eskolan izen eman nahi dutenek gaur izango dute azken aukera. Futbol eskola 1997 eta 2002 urte bitartean jaiotako neska mutilen dago zuzendua. Kurtsoa irailaren 30ean eta urriaren 3an hasiko da eta astean egun batean edo bi egunetan joateko aukera izango da. Matrikula egiteak 20 euro balio ditu eta hileko, egun batean joanez gero 27 euro ordaindu beharko dira eta bi egunetan joanez gero 42 euro. Bi edo anai araba gehiagok ematen badute izen %10eko deskontua izango da. ||

Adarramendiko azken basa behiak Betizuak



Galzorian dagoen arraza da betizua. Historiaurreko basa behia, arbasoen zezen gorria... badute zerbait bere begi izuek. Adarra eta Mandoegiko magaletan iraun du bereziki. Azienda majoa duen Juan Mari Otaegik eta arraza autoktonoetan aditua den Joxe Mari Plazaolak lagundu digute begirada hori entenditzen.

Urko Apaolaza

BESABIKO pistan gora abaila hartu du *todoterrenoak* hormigoizko bidezuloak ikusi ere egin gabe: "Hi, hau mendia duk eh!" dio Juan Mari Otaegik. Bi langa gorago autotik jaitsi eta ozen hasi da inguruko ganaduari deika "Etorri, tous tous!", kazetariaren begien harridurarako, inguruko betizuak hurbiltzen hasi dira, ezagutzen duten gizon horri ogi koxkorren bat eskutik kentzeko asmoz.

Beti pentsatu izan da betizuak ikaratu egiten direla inguruan norbait sumatzean eta sinestezina egiten da

derrepentean norbere burua adar zorrotzen artean ikustea. Baina Otaegiren saila berezia da oso, egunero egiten du menditik buelta bere abelburuak nola dauden ikusteko. Jubilatutik dagoen adunatar hau behi eta idi artean hazi zen eta hortik datorkio betizuenganako afizioa, nabari da eskua duela horretarako: "Baina ez pentsa denak horrela etortzen direnik, badaude korrika alde egiten dutenak".

Sua dario adarretatik...

Ez da zaila mendian betizua bereiztea, hiruzpalau nozioarekin nahikoa da. Tamaina txikikoa da, metro bat pasa-

txo neurtzen du bizkarrera arte (400 kg); ile gorria edo gari kolorekoa du denean, eta muturrean edo bizkarrean ez zaio inolako beltzgunerik ateratzen; azkazalak argiak ditu eta adarrak, berriz, kolore nakaratuarekin. Urruxari adarrak zabal hazten zaizkio hasieran eta gero lira forma berezia hartzen dute behi heldua denean. Zezenaren adarrek, aldiz, ilargi erdiaren forma izaten dute. Ezaugarri horiek guztiak 1997an finkatu zituzten Iparraldeko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko arduradunek, betizu prototipoa definitzeko egindako bilera batean.

Baina agian, betizuen bereizgarri zirraragarriena haren begiak dira. Beste behi arraza mantsoetan ez bezala, bizi-biziak dira begi beltz horiek, eta horrek erakusten du behinola basatia izan zen animalia nortasuna gordetzen duela oraindik.

Badira, Euskal Herriko mendietan, sekula harrapatu gabeko aleak: "Jendeak badaki gutxi gorabehera zeinenak diren, halako behiaren umea ote den-edo..."

Jatorrian arraza librea

Betizuari "behi+izu" etimologia atera izan zaio eta izenari ohore egiten diola esan daiteke. Badira, Euskal Herriko mendietan, sekula harrapatu gabeko aleak: "Jendeak badaki gutxi gorabehera zeinenak diren, halako behiaren umea ote den-edo..." dio Otaegik. Berak izan ditu rifle anestesikoarekin harrapatutakoak, hortik atera kontuak. Baina gaur egun Euskal Herrian ez da jaberik gabeko betizu librerik geratzen, azkenekoak Larrun mendian ehizatu zituzten 1924an.

Basa behi hauek Euskal Herri osoan zeuden aspaldi. Betizuak lirarteke gure arbasoen istorioetan azaltzen diren behi eta zezen gorriak, Barandiaranek jaso legez, baserriko alabek ikuilura eraman ezin zituzten demonio halakoa. Baina istorioen atzean egiazko oinarriak daude, betizuak fosil bizidunak baitira. Basabere hauetatik eratorria da arraza piriniarrek behia: "Pirenaikoa mejoatzen eta mejoatzen

joan da eta lehengo izaera basatia galdu egin du. Bihar edo etzi berreskuratu nahi badute betizuen beharra izango dute seguru asko". Joxe Mari Plazaolak

eskarmentu haundiz hitz egiten du, badaki zer den arraza bat berreskuratzea.

Diputazioko beterinario hau duela hogeit hamar urte hasi zen betizuekin lanean, eta bere "denbora eta diruarekin" galzorian zegoen behi autoktonoa iraurazi zuen. Gaur egun nekez aurkituko du inork betizuez berak baino gehiago dakienik: "Azken batean ondare kultural bizia da hau" dio ondoko biga gorriari begirik kendu gabe.

"Gaur egun Nafarroan eta beste zenbait lekutan dauden betizu ia guztien jatorria mendi hauetan dago"

Joxe Mari Plazaola

"Niri aitona batek esan zidan: ez gastatu behietan eta behorretan dirurik, zezenetan eta zalditan baizik".

Juan Mari Otaegi

Oindititik Mandoegira, betizuaren azken babeslekua

Zergatik iraun du betizuak gaur egun arte egoera erdi-basati horretan? Ez da erraza erantzuten, baina jakina da azken sailek Adarramendi eta Mandoegiko inguruak izan dituztela babesleku nagusi, eta bertan buru oso "garbiak" mantendu direla. Badirudi gizakiaren eraginez atzerakada nabarmena izan zuela betizuak eta larreetarako balio ez zuen guneez ezkutatu zela. Gainera, kasu askotan beste behi arrazekin nahastu zen eta horrek konplikatu egin du bere iraupena. 1975ean, arraza ia desagertzeaz zegoen, Nafarroako Naturzaleen Elkarteak Goizuetako jabe bati hainbat abere erosi eta Itoiz inguruan sail berriak hazteari ekin zion: "Gaur egun Nafarroan eta beste zenbait lekutan dauden betizu ia guztien jatorria mendi hauetan dago" dio Plazaolak.

2005eko datuen arabera Adarramendiko Gipuzkoako aldean 61 betizu daude eta hauei gehitu behar zaizkie Goizueta eta Leitza inguruan daudenak, azken batean elkarrekin bizi baitira. Dena den kontu handia eduki behar da zenbaki horiekin, erroldak egitea ez baita batere erraza hain izuak diren animaliarekin. Euskal Herriko beste zenbait lekutan ere badira betizuak: Arno mendian, Elgean, Jaizkibelan, Diman, Lapurdiko Xoldokogainan... Horrez gain, Gipuzkoako Diputazioa betizu saldo publiko bat hazten ari da Pagoetan, eta Nafarroako Gobernuak ere modu basatian hazten ditu Agoitzen duen finka batean. Bestalde, Europar Batasunetik dirulaguntza zenbait ematen dituzte eta berreskuratze programa bat dago martxan.

Mendiko lorazaina

Txismistak jo du eta euri tanta lodikote batzuek mehatxu egin dute. Abailarri ondoko gain horretatik garbi ikusten dira Hernani eta Urnieta, eta baita Donostiako itsasertza ere. Otaegik makila luzatu du zezenko baten eta bere artean distantzia jartzeko: "Niri aitona batek esan zidan: 'ez gastatu behietan eta behorretan dirurik, zezenetan eta



Goitik behera: Juan Mari Otaegi bere behietako bati kasu egiten. Etenetan betizua larrean, atzean Ernio. Otaegi eta Plazaola betizuak ogiarekin erakartzen. Ezkerreko irudian: Betizuak Abailarri inguruan, atzean Hernani ikusi daiteke.

zalditan baizik". Esanari jarraituz ahalgin handia egiten dute zezen onenak bereizten. Baina pasa liteke hainbat belaunaldiren ondoren behiren bati ilea iluntzen hastea edo azkazalak behar bezalakoak ez izatea; orduan Otaegik ez du zalantzarik izaten, kendu egiten du eta kito.

Normalean betizuek ez dute ikuilurik ezagutzen, mendian pasatzen dute negua, elurra ari edo hotz egin, eta larre motzean ohituak daude "jardinero lanak" egiten dituzte Plazaolaren

hitzetan. Jakina, kondizio horietan ernalketa ez da hain maiz izaten eta amak esne gutxi ematen du. Animalia hauek beti eremu antzekoan ibiltzen dira bazkatzen eta ikusgarria izaten omen da maiatzean zezenen artean izaten diren borrokak, beste arraza askotan bezala, jerarkia zorrotza baitaigo betizuen artean ere.

Betizuek ez dute ikuilurik ezagutzen. Mendian pasatzen dute negua, elurra ari edo hotz egin, eta larre motzean ohituak daude.

Arraza autoktonoen argazki erakusketa

MARISOL Yaben argazkilariak arraza autoktonoen argazkiak jarriko ditu ikusgai Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko egoitzan. 21 koadro izango dira eta horietatik 3 betizuei eskainiak. Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako betizuei atera dizkie argazkiak Yabek.

Erakusketa gure lurraldea hobeto ezagutu eta kultura sustatzeko helburuz antolatu du argazkilariak eta datorren ostiralean izango da inaugurazio ekitaldia. ■

Erakusketa

- **Non:** Argazkilarien elkartean (Donostiako San Juan kalean)
- **Noiz:** Hilaren 26tik hiru astez. Astelenetik ostiralera 17:00-21:00 eta larunbatetan 17:00-20:00.

"Eta jendearekin ez al da problema izaten?", galdera ebidentea da, igandetan Besabiko errepidea kotxez nola betetzen den ikusita. Ezetz diote. Beste behiek bezala, betizuekin ere kontu eduki behar da umearrekin dardenean. Problema izatekotan zezenekin izaten omen dira, udazkenean, ehiztariren baten txakurrak xaxatuz gero, baina arriskuan sentitzen badira bakarrik. "Zenbat baserritar hilko dira urtean behi limousinak eta halakoekin? Horiek gaiztoagoak dira! Betizuek keinua egin bai, baina gero ospa egiten dute" dio albaitariak.

Lehenago haragia: ehizaren tankerakoa


Beherago badu ikuilu bat Juan Mari Otaegik (animali erosi berriak edo ama galdutakoak zaintzeko, besteak beste), belar zakarra eman dio biga bati, ondokoari aldiz pentsu naturala, arto eta garagarrez osatua. Nabari da diferentzia. Betizuaren haragiak gustu suharrak du, ehizaren tankerakoa. Izaten al du arrakastarik horrek harategietan? Plazaolaren esanetan jendeak haragi txuria nahi izaten du: "hori erraza da, animali bati burnirik ez badiozu ematen anemiko bihurtuko da", dio. Betizuek, aldiz, gustu fuerteko txuleta txikiak ematen ditu, "lehenago haragiarena", eta harategietan ez da prezieski estimatuena, merkeagoa izanagatik ere: "Komodo bihurtu gara" dio Otaegik. Hala ere pixkanaka ari da betizuaren haragia ezagun egiten. Behin probatu duenak hurrengo urtean ere nahi izaten baitu. Urtero bezala, urrian betizu jana egingo da Besabin, bertan biltzen dira abeltzainak eta aukera izaten da benetako betizu haragia jateko.

Badirudi, behi autoktonoa berreskuratze bidean dela, aurki odol analisiak egiten hasiko dira, abere bakoitzak aita zein duen jakiteko. Baina ondare bizidunaren iraupena ezin da abeltzain gutxi batzuren esku utzi, administrazio osoaren inplikazioa beharko du. ■



Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialaren gida txikia

Zinemaldia orain dela hiru egun hasi arren, lehia dauden pelikula gehienak gaurtik aurrera ikusi ahal izango ditugu ohizko antzokietan.



XABIER ERDOZIA, 'LOU'

HONA hemen arrazoi desberdinegatik Sail Ofizialean parte hartzen duten pelikula gehienak. Egia esan, aurretik ikusita, lan galanta egin dute Zinemaldiko antolatzaileek hain izen propio interesgarriak biltzeko.

HIROKAZU KORE-EDA: ARUITEMO, ARUITEMO/ STILL WALKING

Egun Japonian ekoizten den zinemaren arabera, lehen mailako zuzendariaren artean kokatu beharra dago Hirokazu Kore-Eda. Bitan izan dugu gure artean Donostiako Zinemaldiaren Sail Ofizialean: *Wandarfuru raifu* eta *Hana* pelikulekin, hain zuzen ere. Oraingoan erretratu familiar batekin dator (badirudi Zinemaldiaren edizio honetan hori izango dela gai nagusia) eta *Nadie sabe* (2005) bezain sendoa izatea espero dugu *Aruitemo*, *aruitemo* hau.

SAMIRA MAKHMALMAF: ASBE DU-PA/ TWO-LEGGED HORSE

Mohsen Makhmalbafaren alaba (*Kandahar* pelikula ospetsuaren zuzendaria eta zinema iraniar berriaren berpiztailea, hain zuzen ere) eta Hana Makhmalbafaren ahizpa (iaz Hanak arrakasta galanta eta sari bat jaso zuen zinemaldian *Buda explotó de verguenza* pelikulari esker), Samira zuzendari iraniar gazteen artean ospetsuena da. *La manzana* (1998), *La pizarra* (2000) eta *A las cinco de la tarde* (2003) filmeen zuzendariak maisutasuna eta ustezko erreztasuna adierazten du filme bat zuzentzen duen bakoitzean. Ea oraingoan horrela den. Gaur duzue filme hau ikusteko azken aukera (Antiguo Berri Antzokiko 2 Aretoan, gaueko 23:00etan).



Frozen River pelikulako irudi bat, Courtney Hunt zuzendariaren lan guztiz gomendagarria.

MICHAEL WINTERBOTTOM: GÉNOVA

Zuzendari britaniarra hirugarren aldiz izango da Sail Ofizialean *9 songs* (2004) eta *Tristan Shandy: A Cock and Bull Story* (2005) aurkeztu ostean. Badirudi *Un corazón invencible* (2007) nabaria filmatu ondoren Winterbottomek aurrekontu gutxiko proiektu intimista bati ekin diola, zeren *Génova* pelikula zuzentzeaz gain, gidoigilea ere bera baita. *24 hour party people* (2003) eta *In this world* (2003) maisu lanen zuzendariak ekiten dio Hirokazu Kore-eda bezala familiaren gaiari. Ama hil ondoren, aita eta bi alabek Génovara jotzen dute berriro familia berreraikitzeke xedez. Colin Firth haundiak antzeztu du aitaren rola.

LÉA POOL: MAMAN EST CHEZ LE COIFFEUR

Le papillon bleu (2004) erraldoia filmatu zuen ezkerotzik, zuzendari frantziarra ez da kamera atzekaldean ipini urte honetara arte. 1978 urte ezkerotzik dabil Pool zuzendaritza lanetan, eta nahiz eta zuzendari trebea izan, ez dugu auke-

rarik izan ezta bere filme bakar bat ere dastatu ahal izateko. Familia da berriro ere gai nagusia, baina kasu honetan neska gazte batek hartuko du garrantzizko rola. Eta berriro ere, amaren desagerpenak baldintzatuko ditu familiaren aurrerapausuak.

COURTNEY HUNT: FROZEN RIVER

Courtney Hunt en lehenengo filmeak Epaimahaiaren Sari Nagusia irabazi zuen aurtengo Sundance Zinemaldian. Bere laburmetrai batean oinarritua, *Frozen river* filmeak ezkutuko migrazioaren gaia jorratzen du. Baina zerk egiten du bitxia *Frozen driver* hau? Dirua erraz jasotzeko asmoz, etorkinei muga pasatzen laguntzen saiatuko diren bi emakumeren zergatietan sakontzen duela. Melissa Leo eta Misty Upham sekulako lana egiten omen dute sail ofizialeko sorpresa izan daitekeen filme horretan. Oraindik baduzue ikusterik, gaur arratsaldeko 16:00etan Victoria Eugenia Antzokian, eta bihar ordu berean, baina Antiguo Berri Antzokian. Guztiz gomendagarria.

DANIEL BURMAN: EL NIDO VACÍO

El abrazo partido filmearekin, Daniel Burman zuzendariak Epaimahaiaren Sari Nagusia irabazi zuen 2004ko Berlinalean. Filme hori gauzatu zuen ezkerotzik, zuzendari argentinarrek ez du kale egin: *Derecho de Familia* (2006) pelikulak familiaren konplexutasunak aztertzen zituen ezinhobeto eta badirudi *El nido vacío* lana ere antzeko bidetik dijoala. Seme-alabak etxetik alde egiten dutenean, senar-emazteen arteko tirabirak azalean agertzen dira, eta badirudi gorabehera horiek jorratzen dituela Daniel Burmanen film horretan. Oscar Martínezek eta Cecilia Roth-ek antzeztu dituzte garrantzizko rola.

KIM KI-DUK: BI MONG/DREAM

Primavera, verano, otoño, invierno... y primavera zuzendu zuenetik, Kim ki-Duk-ek ez du filme bakar bat zuzendu gustoko dudarik. Bere estilo arraro eta itxia ez dator bat nirekin. Baina ulertzen dut zuzendari korearraren izenaren azalpenak Sail Ofiziala jaten duela. *Bi mong* horretan berriz

agertzen da ametsen mundua eta errealitatearen arteko nahasketa, ohizko gaia den Kimki-Duken pelikuletan (*Primavera, verano...* filmean izan ezik). Dударik gabe, egun estilo arrunta eta unibertso personala duen zuzendari apreziatuena (zinemaldietan, batez ere).

JAIME ROSALES: TIRO EN LA CABEZA (TIRO BAT BURUAN)

Iaz Rosales zinemaldira etorri zen *La soledad* bere bigarren filmean aurkeztera eta nik lagundu nion. Bere pelikulak ez zuen oraindik Goya Saria irabazi, eta aretoan oso publiko gutxi zegoen. Emanaldiaren ostean afaltzera joan ginen eta izan nuen tartetxo bat ezagutzeko. Eta bere filmeak gustatu arren (*Las horas del día*, *La soledad* baino gehiago, egia esan) oso tipo pedante eta aristokratikoa iruditu zitzaidan. Datu bat besterik ez daukat hori adierazteko: solasean ginen bitartean (monologo bat izan zen, egia esan, badirudi Egia Unibertsala duen tipo bat dela) berak langostinoak sardeska eta labanarekin jan zituen. Nire ondoren Pedro Aguilera zuzendari donostiarra zegoen eta zera aipatu zidan berak komunera-ko bidea hartu zuen tarte batean: «langostinoak sardeska eta labanarekin jaten dituen pertsona batetaz ez daukazu sekulan fidatzerik». Baina baliteke zuzendari ona izatea, esaten dut nik. Txantxa eta kalitatearen eztabaida aparte utzita, hau da seguruenik Zinemaldian sua piztuko duen pelikula bakarra. Rosalesek *La soledad* filmean zeharretik ukitzen bazuen terrorismoaren gaia, oraingoan benetako gertaera bat (beste aldean gertatutako bi goardia zibil hilketak) oinarri hartzen du, biolentziaren erabilera politikoaz mintzatzeko. Dударik gabe, ausarta. Eta interesgarria. ■



Atzo lanean aritzeko txanda jokalarien gurasoei tokatu zitzairen, eta ondo merezitako bazkaria egin zuten.

Garagardo Azokaz gozatzeko azken eguna gaur

Hernaniko Errugbi Elkarteak antolatutako Garagardo Azokak gaur gaueko 01:00ak aldera itxiko ditu ateak, datorren urtera arte.

GOGOTSU ekin zioten V. Garagardo azokari ostegunean, bai Errugbi Elkarteko antolatuak eta baita hernaniar guztiek ere. Hiru egunetan jende ugari bildu da arratsalde eta gauz Atsegindegiko plazan. Garagardoa hartu eta sagardotegiko menua janez, urtero bezala, momentu ederrak pasa dituzte hernaniarrek. Hala ere, oraindik joan ez direnek edo errepikatu nahi dutenek, izango dute aukera gaur.

Errugbi jokoak eta mus azkarra

Gaur, baita ere, Hernaniko errugbi eskolak antolatuta, errugbiarekin zerikusi zuzena duten jokoak izango dira, Biteri Kultur etxean arratsaldeko 17:00etan.

Bestalde, errugbi taldeko beteranoek mus txapelketa azkarra ere antolatu dute. ||



Jendea gogotik inguratu da azokara, batez ere afaltzera.

IRAILAK 22, astelehena:

- **Astigarragan, Euskaraz Bai! astea:** Hitzaldia: Kontseilua 10 urtz bidea irekitzen. 20:00etan, Kultur Etxeko aretoan.

IRAILAK 23, asteartea:

- **Gazte Txokoa:** Play Station. Gazte Txokoa.
- **Astigarragan, Euskaraz Bai! astea:** Haurrentzako tailerrak eta jolasak. 17:00etan, Joseba Barandiaran plazan.

IRAILAK 24, asteazkena:

- **Gazte Txokoa:** Sukaldaritza Tailerra. Gazte Txokoa.

IRAILAK 25, osteguna:

- **Gazte Txokoa:** Futbolin Txapelketa. Gazte Txokoa.



IRAILAK 26, ostirala:

- **XXV Sagardo Lehiaketa:** Txantxangorri elkarte. 20:00etatik aurrera, inguruko 15 sagardogileren sagardoak.
- **Gazte Txokoa:** Frontenis Txapelketa.
- **Astigarragan, Euskaraz Bai! astea:** Erakusketa eta Panel Informatiboak, ikastolako ikasleek egindako lanenak. 14:00etan, Ikastolako patioan.

IRAILAK 27, larunbata:

- **XIX Mugarri Bisita.**
- **Gazte Txokoa:** Altxorraren bila.

IRAILAK 28, igandea:

- **Pailazoak:** Run Run. Poxpolo, Mokolo eta Konpainia. Biteri kultur etxean, 17:30etan.
- **Igande Musikatuak:** Igandeko Sargoria. Musika Tilosetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

AUKERA!!

Pisua salgai prezio onean

- Kardaberaz kalean
- Sukaldea, sala, 2 logela, komuna eta trastelekua
- Altxariekin
- Sartzeko moduan






**Informazio gehiago
616 646 660**

IBILKOM

KARROZERIA
TURISMOAK ETA FURGONETAK


IBILGAILU INDUSTRIALAK
KARROZATUAK

TXAPA - PINTURA 
BEIREN TINTATZEA
IBILGAILUEN ROTULAZIOA



KAMIONETAK
BOLKETEAK - GRUAK
ISOTERMOAK - HOTZ EKIPOAK

ARALAR TABERNA




**GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ**

**ZAPA KALEA 8
T 943 33 15 06**

TITAN-ETXE TABERNA

ASTEBURUETAN AFARIAK



**Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46**

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gaez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA GAUR Eguraldi ona espero da. Goizean hego haizea eta giro eguzkitsua izango da. Arratsaldean lainotu egingo du. Tenperaturak gora.

BIHAR Giro goibela izango da. Zeruan lainoak izango dira nagusi eta zaparradak botako ditu. Tenperaturak behera egingo du. (euskalmet)



Haur jokoetan parte hartu zuten Karabelgo umeak.

Zoriontsu ibili ziren umeak Karabelgo festa egunean

Marrazki eta idazketako sari banaketa egin zuten eta ondoren, haur jokoan izan zituzten: lokotxak bildu, bizikleta lasterketa, txingak...

URTEAN gutxitan izaten dute arrazoi ezberdinengatik Karabel auzoko umeek elkartzeko aukera. Beraz, atzo bezelako festa egunean ez zuten hutsik egin nahi izan eta izan ziren herritik inguratu zirenak ere. Haur joko ugari izan zituzten: bizikleta lasterketa, txingak, lokotxak biltzea eta abar.

Jokoan hasi aurretik, festa eguneko antolatzaileek marrazki eta idazketako sari banaketa egin zuten. Marrazkian Irabazlea Iker Sancho izan zen, bigarren Ander Ortega eta hirugarren Ainhoa Harto. Idazketan irabazlea Mikel Rosell izan zen, bigarren Maria eta hirugarren Naika. ||



Lokotxak biltzen, azkarrena zein ote, lehia izan zen.

IGANDE MUSIKATUAK

Reggae eta Rap doinuak gaur Tilosetan

Igandeko Sargoria izango da gaur Tilosetan, 18:00etatik aurrera, eta bertan Reggae eta Rap doinuak izango ditu jendeak entzungai. Hernaniko Mikel musika zaletu gazteak egingo du musika aukeraketa. ||

GOIZUETA

Euskal jaia gaur Ixkibi kanpenean

Goizuetako Ixkibi kanpenean egun guztiko festa izango dute gaur, Euskal jaietan. 12:30etan Abesbatzaren emanaldia izango dute; 13:00ean herri kirolak; 14:00etan, talo jatea; 16:00etan toka txapelketa; eta 18:00etatik aurrera erromeria, Bide Batez taldearekin. ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Kobxa beharrezkoa da.

Deitu: 615 723 925.

Pisua salgai Portu auzoan, 72m2, dena kanpokaldera eta altzariek. Deitu: 688 631 558 / 615 740 565.

Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110

Furgoneta salgai, volswagen carabel, ondo zaindutakoa (ekipatua). Deitu: 663 649 765.

Haurrak zainduko nituzke goizez eta arratsaldez. Deitu: 687 634 305

Tabernaria behar da Hernaniko taberna urte osoan lan egiteko (jomada osoa). Deitu: 616 589 445.

Pisu bila nabil Hernanin (alokairuan). Deitu: 626 802 083

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Oreatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurren garapena osasuntsua eta zoriontsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).


Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



2008-2009 IKASTAROAK

IZEN EMATEA ZABALIK

- GAZTEENTZAKO, HELDUENTZAKO ETA ENPRESEENTZAKO IKASTAROAK

- DELF, DALF, EOI ETA BESTELAKO AZTERKETEN PRESTAKUNTZA

- TALDEKAKO IKASTAROAK ETA KLASE PARTIKULARRAK

Antziola, 26 - HERNANI

609 85 96 69

Amegar
Etxe Tresnak - Altzariak

50 urte
ZOZKETA

2008an erosketa egin duten bezero guztien artean (altzari edo etxe tresnak) urte amaieran LCD 32" TB MODERNOA zozketatuko dugu. Zorte on!



599€



Erabili ezazu BERRIAK Txartela



Ordaintzeko erraztasunak - Finantziaketa - 18 hilabetetan interesik gabe -

Txirrita kalea, 13-15

Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

HERNANI ENGLISH

HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)

Rebeka D., Ibai Z., Jon I. eta Iñaki A.
ZORIONAK FIRST ATERA DUZUELAKO

MATRIKULA IREKITA IRAILA OSOAN

- ORDUTEGIA: 12:00 - 13:30
18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08

Kale Nagusia 41 - 1